


LEHEN HEZKUNTZA eta HAUR HEZKUNTZA

GRADU BIKOITZA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatea



II. MODULUA ESKOLA ETA CURRICULUMA

2025/26 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

HEFA II eraikina: Oñati plaza 3, Donostia

AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Moduluko lanaren bitartez garatu nahi diren konpetentziak	6
3. Lanaren helburu orokorra eta aurkeztutako kasua.....	8
4. Eginkizunak, urratsez urrats	9
1. urratsa. Taldeak osatu eta kanpo baliabidea aukeratu.....	9
2. urratsa. Kanpo baliabidearen deskripzioa.....	9
3. urratsa. Kanpoko baliabideari bisita	10
4. urratsa. Kanpo baliabidearen analisisa	10
5. urratsa. Ondorioen atala garatu	13
6. urratsa. Txosten idatzia	14
7. urratsa. Bisitaren narrazio bisuala	14
5. Lanaren gidoia	16
6. Lanaren ezaugarri formalak eta zenbait ohar	17
7. Kronograma.....	18
8. Ebaluazioa	19
Eskola-saioetara bertaratzen diren ikasleak	19
Eskola-saiotara bertaratzen ez diren ikasleak.....	20
9. Eranskinak	21
1. eranskina. Ikasleen talde-fitxa	21
2. eranskina. Kanpo baliabidearen erregistro fitxa	23
3. eranskina. Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Orokorraren Zehaztapen taulak.	24
4. eranskina. Ebaluazio errubrika.....	28
5. eranskina. Taldearen dinamika ebaluatze txantiloia.....	31
6. eranskina. Taldekideen koebaluazioa (tutoreari bidaltzeko).....	32

Moduluaren koordinatzailea: Lorea Azpiazu Izagirre (lorea.azpiazu@ehu.eus)

Moduluko irakasleak:

Didaktika Orokorra: Nahia Delgado de Frutos

Hezkuntzaren Psikologia: Lorea Azpiazu Izagirre

Matematika eta bere Didaktika I: Joxe Mari Sarasua Fernández

Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I: Oihana Barrutia Sarasua

Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I: Leire Albas Ibeas

Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I: Ixiar Rozas Elizalde

1. Sarrera

Jarraian irakurgai duzun dokumentu honen bidez, Haur eta Lehen Hezkuntza Gradu bikoitzeko 2. mailako bigarren lauhilekoan burutu behar den moduluko lana aurkezten da. Lan hau Graduan burutuko diren 5 modulu lanen artean bigarrena da eta *Eskola eta Curriculum*a du izena. Bigarren lauhilekoan dauden irakasgai guztien ekarpenekin osatuko da zeregina:

Hezkuntzaren Psikologia	Didaktika Orokorra	Matematika eta bere Didaktika I
Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I	Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I	Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan I

Dakizuen moduan, moduluko lana **diziplinarreko lan bat** da (eremu desberdinetako jakintzen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea du helburu). Bere helburu nagusia askotariko hezkuntza errealitateen inguruko analisiak egiteko gaitasuna trebatzea da, errealitate hori osatzen duten praktika edo egitasmo pedagogiko zehatzak behatuz.

Zehazki, lan honen helburua kanpoko **baliabide didaktiko baten** (museoa, interpretazio zentroa, eta abar) **hezkuntza-eskaintza aztertzea eta baloratzea da**, Lehen Hezkuntzako 1. zikloko oinarritzako jakintzak eta konpetentzia espezifikoak lantzeko egokia den ala ez ebaluatzeko. Horretarako, talde bakoitzak bisita egingo du, hautatutako jarduera didaktikoa aztertuko du eta haren ekarpen pedagogikoa Curriculumean oinarrituta baloratuko du.

Hau guztia bideratu ahal izateko kasu zehatz bat proposatuko zaizue, **lan akademiko** honen nondik norakoak hobeto kokatzeko. Gainera, idatziko lan akademikoaz gain, **bisitaren narrazio bisuala** garatu beharko duzue. Horrek esan nahi du jasotako informazioa eta esperientziak modu grafiko eta estrukturatuan aurkeztu beharko dituzuela.

Modulu honetan ikasleek **taldeka lan** egingo duzue, irakasle-tutoreen laguntzarekin, eta egindako analisi hori jasoko duen lan akademiko bat osatuko duzue. Lanak baliabidearen deskribapena, bisitan oinarritutako jarduera didaktikoaren azterketa, balorazio pedagogikoa

eta ondorioak bilduko ditu; baita erreferentzia bibliografikoak eta narrazio bisual bat ere. Horrez gain, garrantzitsua izango da lanaren edukia eta forma zaintzea, eta talde-dinamika egokia garatzea prozesu osoan zehar.

2. Moduluko lanaren bitartez garatu nahi diren konpetentziak

Graduaren bigarren moduluan, irakasleen jardun profesionalerako oinarritzko prestakuntza eskaintzen da ikuspegi kurrikular baten baitan, psikologiaren, didaktika orokorraren eta didaktika espezifikoen ekarpenak integratuz.

Zehazki, moduluko diziplinarteko lanak harremanetan jarriko ditu irakasgai bakoitzean dauden edukiak, etapako ikaskuntzako oinarritzko printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) indarrean dagoen hezkuntza curriculum arauemailea, horiek guztiak lotuz Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoetan dauden ikaskuntza proposamenekin.

Proiektu honen bidez landu nahi diren konpetentzia zehatzak hauexek dira:

1. Gaur egun Lehen Hezkuntza etapan erabilgarriak izan daitezkeen kanpo baliabide didaktikoak aztertzea eta baloratzea, curriculum osagaietatik eta arlo desberdinetako ikuspegietatik abiatuta, elkarlanean
2. 6-12 urte bitarteko etapan (Lehen Hezkuntzan) ikaskuntza-irakaskuntza oinarritzko printzipioak aztertzea eta ulertzea, kanpo baliabide didaktikoen analisi eta balorazioari aplikatuz.
3. Museo, zentro edo espazio kultural baten inguruko narrazio bisual bat sortzea, garatzea eta aurkeztea, bizitako esperientzian eta egindako analisisian oinarrituta, behaketa kritikotik, hausnarketa pertsonaletik eta esperimentazio formal eta teknikotik abiatuta.
4. Taldeka idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, informazioaren teknologiak eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio konpetentziak erabiliz ere.

5. Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.

Honela, lauhilekoa amaitzean, kanpo baliabide didaktikoak aztertzen jakin beharko duzue, gaur egun indarrean dagoen curriculum araudiarekin bat egiten duten neurtu ahal izateko, eta, hala dagokionean, beste aukera batzuk proposatzeko.

Gainera, hobeto ezagutuko dituzue Lehen Hezkuntzako 1go zikloan eta curriculumaren oinarrian dauden oinarri psikopedagogikoak. Oinarrizko gaiei buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileago bat eskuratzeaz gain, didaktika espezifikoak ezagutzen hasiko zarete, beren lanketa didaktikoa, curriculumetik eta arloen funts teorikotik abiatuz.

Hainbat baliabideren artean, bakoitzaren egokitasuna balioesten eta argudiatzen jakingo duzue, Lehen Hezkuntzako 1go zikloan jakintza nola sortzen den ikusirik, curriculumeko gomendio arautzaileak nolakoak diren, eta arloetarako aztertutako baliabide didaktikoek proposatzen dituzten oinarrizko jakintzak eta kompetentzia espezifikoak egokiak diren aztertuz. Lan horrek honako hau eskatzen du: arlo desberdinetatik baliabideei buruzko azterketa eta hausnarketa.

3. Lanaren helburu orokorra eta aurkeztutako kasua

Lan honen helburu orokorra Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako baliabide didaktikoak modu kritiko eta arrazoituan aztertzeko, ebaluatzeko eta hautatzeko gaitasuna garatzea da, EAEko curriculum araudia eta oinarri psikopedagogikoak kontutan hartuz.

Lan honen helburua lortu ahal izateko, modulu honetan hurrengo kasu praktikotik abiatuko zarete.

Kasua

Derrigorrezko Hezkuntzak daukan curriculum ikuspegi berria kontutan hartuta, zeina konpetentzietan oinarriturik dagoen, zentro bateko irakasle taldeak baliabide didaktiko berriak bilatzea erabaki du, eskolan lantzen diren oinarrizko jakintza eta konpetentzia espezifikoaren lanketa, inguruan dauden hezkuntza baliabideetara bisitak eginez osatu ahal izateko. Erabakiak hartu aurretik, kanpo baliabide didaktikoen inguruko informazioa biltzea erabaki dute, Lehen Hezkuntzako 1go zikloko arlo desberdinetako oinarrizko jakintza eta konpetentzia espezifikoak lantzeko asmoz. Horrela, kanpo baliabide horren eskaintza didaktiko baten LH 1go ziklorako egokitasuna balioetsiko da, alde onak eta hobe daitezkeenak azpimarratuz (behar izatekotan).

Zuen eginbeharra, ikastetxeko irakasle taldearen kide berri bezala kanpo baliabide didaktikoen (interpretazio zentro edo museo) hezkuntza eskaintza aztertzea eta baloratzea izango da eta horrekin txosten bat osatzea.

4. Eginkizunak, urratsez urrats

1. urratsa. Taldeak osatu eta kanpo baliabidea aukeratu

Lehen egitekoa taldeak osatzea izango da. Taldeak berebiziko garrantzia du, taldearen nolakotasunak gure lan prozesu osoan eragiten duelako. Garrantzitsua da, beraz, taldeak osatzeko unean hainbat irizpide aintzat hartzea. Horretarako, **taldeak izan behar dituen ezaugarriak** zehazten dira:

Taldeakideen kopurua 5 lagunekoa izango da.

- Ikasleok osatuko dituzue taldeak. Prozesua ez da bukatutzat emango ikasle guztiak talderen batean kokatuta egon arte. Ikasleren bat talderik gabe geldituko balitz, orduan irakasleok hartuko genuke taldeak berrantolatzeko ardura.
- Taldeak heterogeneoak eta mistoak izatea gomendatzen da.
- Taldearekin osaketarekin batera, kanpo baliabidearen aukeraketa egin beharko duzue.
- Behin taldeak osatuta, fitxak bete eta eGelara igo beharko duzue (1. eranskina) taldekide guztien izenekin eta bakoitzaren argazkiarekin. **Bertan ere kanpo baliabidearen lehengo aukera posibleak aipatu beharko dituzue.** Fitxak eGelara igo beharko dira otsailaren 2tik 6ra.

Behin hori egin ondoren, talde bakoitzari irakasle-tutore bat esleituko zaio. Eta aipatu irakasle-tutorearen laguntza eta gidaritza izango du ikasle taldeak. Garrantzitsua da irakasle-tutorearekin egin beharreko bilerak prestatzea.

Data: otsailak 2-6

2. urratsa. Kanpo baliabidearen deskripzioa

Tutorea eta baliabidea esleitu zaizkizuenek, baliabidearen inguruko lehen hurbilketa egin beharko duzue. Horretarako, baliabideari buruzko informazio orokorra bildu beharko duzue: **non kokatuta dagoen, zein den bere hezkuntza-eskaintza zehatza eta zeini zuzentzen zaion.**

Data: otsailak 23-27

3. urratsa. Kanpoko baliabideari bisita

Lana gauzatzeko, **kanpoko baliabide horretara bisita egitea beharrezkoa da eta baliabidea gertutik bizitzea**. Hori egin ahal izateko zuen tutoreak lagunduko dizue eta egin beharrekoa zehaztuko dizue. Bisita egiterakoan, **informazioa biltzea** komeni da: ebidentziak jaso, argazkiak, bideoak, txostenak, lanak eta abar, betiere bertako arduradunek baimena ematen badizue. Bildutako informazio guztia baliagarria izango da zuen lan akademikoa eta bisitaren narrazio bisuala osatzeko. Informazio hau guztia jasotzeko erregistro-fitxa bete beharko duzue (2. eranskina) eta eGelara igo.

Datak: otsailak 16-martxoak 20

4. urratsa. Kanpo baliabidearen analisia

Behin bisitak eginda, kanpo baliabidearen analisia egin eta lan akademiko baten bitartez adierazi beharko duzue.

Lanaren helburua kanpoko baliabideak eskaintzen duen jarduera zehatz baten azterketa egitea da; eta horretarako, didaktika espezifikoetan irakasgai bakoitzari dagokion arloaren (“matematika”, “arte hezkuntza” eta “natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza”) konpetentzia espezifikoak eta oinarrizko jakintzen garapenean nola laguntzen duten deskribatu beharko duzue. Didaktika eta psikologiako arloak zeharkakoak badira ere, 3. eranskinean dauden irizpideak jarraituz, jarduera zehatz horretako hainbat prozedura nola zehazten diren behatu beharko duzue.

Jarraian, kanpo baliabidearen analisia egingo duzue hainbat diziplinatatik abiatuta. Lan hau diziplinartekoa da, kanpo baliabide didaktiko bera hainbat ikasgaiaren ikuspegitik aztertuko duzuelako. Horretarako, analisiaren atal nagusian, diziplina bakoitzari dagokion irizpideak jarraituz lan egingo duzue, arlo bakoitzaren oinarri teoriko eta kurrikularretatik abiatuta. Ikuspegi horiek bereizita lantzeak ez du esan nahi arloak modu isolatuan ulertu behar direnik; aitzitik, ondorioen atalean, egindako analisiak elkarren artean lotzeko eta baliabide didaktikoaren ulermen integratuago bat eraikitzeko balioko dute. Hau guztia kontuan hartuta, ondoko alderdiak aztertuko dituzue:

Aukeratutako jarduera didaktikoaren deskribapena

Azaldu zein jarduera (adibidez tailer) aukeratu duzuen, eta deskribatu: iraupena, parte-hartzaile kopurua, etab. Egin duzuen bisitaren inguruko informazioa ere gehitu dezakezue (noiz egin zenuten, zein eskolako haurrak joan ziren, etab.).

Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologia

Kanpoko baliabidean egiten den jardueran eta behaketa txantiloian agertzen diren adierazleak kontutan izanda (3. eranskina), informazioa jasoko duzue Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologiaren ikuspegietatik, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak azpimarratuz eta jardueraren analisia bideratuz.

Naturaren zientziak LH-ko ikasgelan I eta Gizarte zientziak eta bere didaktika I

Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako Gradu bikoitzean ematen diren “Naturaren LH-ko Ikasgelan I” eta “Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I” ikasgaietan egin beharreko moduluarekiko lana zera da, kanpoko baliabidean hautatutako hezkuntza jarduerak, Lehen Hezkuntzako curriculumean jasotako “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” arloa garatzeko ematen dituen aukerak aztertzea, etapako 1 zikloari begira. Horretarako, kanpoko baliabideak konpetentzia espezifiko eta Lehen Hezkuntzako 1go zikloko oinarrizko jakintzei egiten dien ekarpena deskribatu behar da, Natura zein Gizarte Zientzien jakintza arloetatik eta, beti ere, modu egokian justifikatuz. Lan hau egiteko, curriculuma erabiliko da abiapuntu gisa, baina baita Graduako ikasgai hauetan Gizarte eta Natur Zientzien Didaktikaren oinarri eta funtsei buruz landutako edukiak ere.

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Lehen Hezkuntzako 1go zikloko “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” arloan landu behar diren zein konpetentzia espezifiko jorratzen ditu aukeratutako jarduera didaktiko zehatzak?
- Aukeratutako jarduera didaktiko zehatzean zein oinarrizko jakintzak jorratzen dira? (zehaztu blokea, Jakintza taldea eta oinarrizko jakintza espezifikoa ahal den neurrian).

Matematika eta bere didaktika I

Esleitutako kanpo baliabideko jarduera zehatz hori aztertu beharko da, diziplinartekotasunaren ikuspegia bistatik kendu gabe, baita matematika arloaren LHko 1go zikloko konpetentzia eta oinarrizko jakintzen ikuspegi berezitik ere. Konpetentzia horiek matematikan estandarrak diren bi iturri kurrikular hauetatik atera beharko dira: a) Curriculum berria, eta b) NCTM-ren “Principles and Standards for School Mathematics”.

Hona hemen zenbait argibide bideratzaile:

- Zein 1go zikloko konpetentziak eta oinarrizko jakintzak landu daitezke, matematikaren ikuspegitik, baliabide horren bitartez?
- Arreta berezia jarri “arrazoibide matematikoa” lantzeko egokiak diren alderdietan, alor hori baita irakasgaian bereziki lantzen dugun blokea.

Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura

Hautatutako hezkuntza jarduerak, Lehen Hezkuntzako curriculumean Arte Hezkuntza arloa garatzeko ematen dituen aukerak aztertzea, Lehen Hezkuntzako etapako 1 zikloari begira. Horretarako, kanpoko baliabideak konpetentzia espezifiko eta Lehen Hezkuntzako 1go zikloko oinarrizko jakintzei egiten dien ekarpena deskribatu behar da, Arte Hezkuntzaren arlotik eta, beti ere, modu egokian justifikatuz. Lan hau egiteko, curriculumaren erabiliko da abiapuntu gisa, eta horrekin batera Graduoko ikasgaian ematen diren oinarri, eduki eta ikuspuntuak ere. Horrez gain, ikasgaian Arte Hezkuntzan landuko den ikuspegi garaikide eta kritikotik aztertu behar dira ere kanpo baliabidearen iharduerak. Baina baita Graduoko ikasgai hauetan Gizarte eta Natur Zientzien Didaktikaren oinarri eta funtsei buruz landutako edukiak ere.

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Lehen Hezkuntzako 1go zikloko “Arte Hezkuntza” arloan landu behar diren zein konpetentzia espezifiko jorratzen ditu aukeratutako jarduera didaktiko zehatzak?
- Aukeratutako jarduera didaktiko zehatzean zein oinarrizko jakintzak jorratzen dira? (zehaztu blokea, Jakintza taldea eta oinarrizko jakintza espezifikoa ahal den neurrian).

Ba agian horrelako zerbait ipini dezakegu gidan, nahiko gidatua eta luzera zehazten duena, zer deritzozue?:

Analisia egin ahal izateko, irakasgai bakoitzak dagokion arloa aztertzeke jarraibideak emango dizkizue. Analisia egiterakoan, **curriculumare erreferentzia gisa erabiltzeaz gain, ikasgelan landutako edukiak ere aipatzea gomendatzen da**. Horrez gain, baliabidean diziplinaren bat modu oso zeharkakoan lantzen bada edo lantzen ez bada, horri buruzko hobekuntzak identifikatu ditzakezue, ideia edo norabide orokorrak aipatuz paragrafo bat edo biren bitartez.

Data: martxoak 23-27

5. urratsa. Ondorioen atala garatu

Aukeratutako kanpoko baliabidearen jarduera zehatza aztertu ondoren, ondorioak atera behar dituzue, honako hiru puntu hauek kontuan hartuta. Era berean, baliabidea zuen eskolarentzat egokia den ala ez azaldu beharko duzue, horren zergatiak justifikatuz.

- Jardueraren egokitasuna: Adinari egokitutako jarduera den ala ez, erabilitako euskarriak eta materialak eguneratuta dauden, materialaren alderdi estetikoa egokia den, eta antzeko beste faktoreak. Halaber, jarduerak ikaskuntza sakona errazten duen ala ez baloratzea, ikasleen parte-hartzea, motibazioa eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen antolaketa kontuan hartuta. Adibidez: Jarduerak ikasleen parte-hartze aktiboa eta motibazioa sustatzen al ditu?, Jardueraren antolaketa didaktikoa (denbora, espazioa, jardueren sekuentzia) egokia al da ikaskuntza errazteko?, Jarduerak ikaskuntza esanguratsua eta sakona sustatzen al du?
- Diziplinartekotasuna: Jarduerak zein neurritan uztartzen dituen Matematika, Arte Hezkuntza, Natura Zientziak eta Gizarte Zientziak azaldu, arlo bakoitzetik egindako analisiak kontuan hartuta, baliabidearen balorazio orokor bat ikuspegi horiek guztiak aintzat hartuz eginez. Adibidez: Zein arlo lantzen dira jarduera honetan (Matematika, Arte Hezkuntza, Natura Zientziak eta Gizarte Zientziak), eta nola agertzen dira?, Zer ekarpen egiten dio arlo bakoitzak jardueraren ulermenari edo hezkuntza-balioari?, Zein arlok du pisu handiena jardueran, eta zein geratzen dira bigarren maila batean? Zergatik?, Arlo desberdinetatik egindako analisiak kontuan hartuta, zer balorazio orokor egin daiteke baliabideari buruz?...

- Agenda 2030 eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH): Jarduerak helburu horiek lantzeko duen egokitasuna eta aukera. Adibidez: Zein GIH landu daitezke jarduera honen bidez? Eta zergatik?

Data: maiatzak 4-8

6. urratsa. Txosten idatzia

Lan osoari forma emateko garaia da. Gida honetan “5. Lanaren gidoia” izeneko atalean proposatzen den hezurdura osatu behar duzue. Dagoeneko garatu dituzuen atalak txertatuz eta osatzeko falta direnak osatuz.

Amaitutakoan eGelara igoko duzue lanaren azken bertsioa Word formatuan.

Data: maiatzak 4-8

7. urratsa. Bisitaren narrazio bisuala

Arte Hezkuntzak eskaintzen dizkigun baliabide kontzeptual eta materialetatik abiatuta, narrazio bisual bat sortuko duzue, baliabideari eginiko bisitan izandako esperientzia eta bizipenetan oinarrituta.

Horretarako, bisitan zehar argazkiak atera beharko dituzue eta zuen koadernoetan oharrak hartu ere. Ondoren, bisitaren ostean, narrazio bisuala eraiki beharko duzue eta horretarako jarraibide batzuk hartu beharko dituzue kontutan:

- Zeintzuk dira bisitak eragin dizkizuen galdera nagusiak? Galdera zaparrada egin taldean eta zerrenda bat egin. Zerrenda egin ondoren, aukeratu 10 galdera esanguratsuenak.
- Galderak hautatu ostean, galderari erantzuten dioten 10 irudi aukeratu edota sortu. Irudiak izan daitezke bisitan zehar ateratako argazkiak edota zuek sortutako marrazkiak, ilustrazioak, grafikoak, irudi-testuak.
- Materialak aukeratu ostean, galdetu: **eraiki den kontakizunak, arte hezkuntzaren begiradatik, curriculumari begiratu eta galdegiten dio?**

Narrazio bisual indartsu bat eraikitzeko, **irudimentsuak** izan. Hau da, galderak eta irudiak landuak izan behar dute. Pentsatu haien arteko harremanak, irekitzen dituzten beste galderak,

irekitzen dituzten leihoak etab. Horrekin batera, Arte Hezkuntzan ikasgaian landuko den bezala, lan estereotipuetatik aldendu, singularrak izan.

Narrazio bisualarekin baliabide didaktikoaren kontakizun bat eratuko da. Hau da, deskribatu ez ezik, ikasle talde bakoitzak baliabidearekiko **bizi izandako bere esperientzia bisualki** (marrazkiak, argazkiak, eskemak...) kontatuko du. Horretarako, testu laburren laguntza (hitzak, oharra, iruzkinak, ideiak) erabil daitezke halaber.

Narrazio bisuala moduluko lanaren aurkezpenaren oinarri gisa erabiliko da, baliabide guztien ikuspegi orokorra izateko.

Data: maiatzak 4-8

5. Lanaren gidoia

Azala

Aurkibide zenbakitua (modu automatikoan)

Sarrera (400-500 hitz)

- Atal hau lanaren laburpen bat izango da eta horren ondorioz, beste atalak bukatutzat ematen direnean betetzea gomendatzen da.

Baliabidearen deskribapena (200 hitz)

Kanpoko baliabidearen analisisa (6-9 orrialde)

- Aukeratutako jarduera didaktikoaren deskribapena
- Didaktika Orokorra
- Hezkuntzaren Psikologia
- Naturaren zientziak LH-ko ikasgelan I eta Gizarte zientziak eta bere didaktika I
- Matematika eta bere didaktika I
- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura

Ondorioak eta aurrera begirakoak (3-4 orrialde).

Erreferentzia bibliografikoak (APA arauen 7. edizioa jarraituta)

Eranskinak Lana indartzeko edota osatzeko egokia izan daitekeena (adibidez, kanpo baliabidean erabilitako fitxak).

6. Lanaren ezaugarri formalak eta zenbait ohar

- Luzera: gehienez 15 orrialdeko lana izan behar du (azala, aurkibidea, sarrera, erreferentziak eta eranskinak kontatu gabe)
- Tipografia eta tamaina: Times New Roman 12, Calibri 12 edo Arial 11.
- Paragrafiak justifikatuak eta lerroarte 1,5ekoa
- Orri guztiak zenbakituak eta aurkibidearekin bat datozenak.
- Marjinak 2,5 zentimetrokoak eta sangriak 5 karakterekoak.

Oharrak:

Lanak edozein lan akademikori dagokion kode deontologikoa bete behar du. **Erabat originala** izan behar du; plagioa ez da onartuko eta kasuren batean plagioa detektatuko balitz lan hori ez litzateke onartuko eta moduluko lana ez litzateke gaindituko.

Euskararen erabilera zuzena egin beharko da. Akats ortografikoak eta morfosintaktikoak kontuan hartuko dira kalifikazioan, eta ez gainditzeko arrazoia izan daiteke.

Taldeko lanak isla zuzena izan behar du lanean; osotasun bat izan behar du, ez norbanakoek egindako zatien batura soil bat.

7. Kronograma

Modulu honetako diziplinarteko lana egiteko gogoan hartu beharreko datak honako hauek dira:

Urtarrilak 26	Lauhilekoaren hasiera
Urtarrilak 26-30	Diziplinarteko lanaren (DILAN) aurkezpena (moduluko koordinatzaileak).
Otsailak 2-6	Taldeak osatu, baliabideak aukeratu eta eGela bidez entregatu Irakasle-tutoreak izendatu eta baliabideak esleitu.
Otsailak 23-27	Egokitutako baliabidearen deskribapena idatzi eta eGelara igo. (LEHENENGO ENTREGAGAIA)
Otsailak 16-Martxoak 20	Bisita egin eta beharrezko informazioa eskuratu. Bisita erregistro-fitxa bete eta eGelara igo (BIGARREN ENTREGAGAIA).
Martxoak 23-27	Jasotako informazioa aztertu eta baliabidearen analisia burutu. Txosten idatzia eGelara igo (HIRUGARREN ENTREGAGAIA).
Apirilak 13-17	Irakasleek txosten idatziari buruzko feedbacka ikasleei eman.
Maiatzak 4-8	Lana zuzendu, bateratu eta ondorioak idatzi. Behin betiko txosten idatzia eGela bidez entregatu (AZKEN ENTREGAGAIA).
Maiatzak 4-8	Baliabidearen inguruko narrazio bisuala aurkeztu.

8. Ebaluazioa

Moduluko diziplinarteko lanak **%20ko pisua** izango du moduluko irakasgai bakoitzean.

Moduluko hiru irakasgai edo gehiagotan matrikulatuta egonez gero, derrigorrezkoa da moduluko diziplinarteko lana egitea. Hiru irakasgai baino gutxiagotan matrikulatuta dauden ikasleek azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean, lan honekin lortu beharreko konpetentziak lortu dituztela erakusteko.

Eskola-saioetara bertaratzen diren ikasleak

Eskola-saioetara bertaratzen den ikasletzat moduluko lan hau baloratzeko, nahitaezkoa da eskola-saioen %75era etortzea.

Kasu horretan, lan honen kalifikazioa hiru ataletan banatuta egongo da:

- **Idatzizko lana eta narrazio bisuala (%15)**

Lanaren zati hau moduluko irakasle guztiek kalifikatuko dute. Lanaren kalitatea ebaluatzeko irakasleek ebaluazio errubrikak erabiliko dituzte (4. eranskina).

Testuaren edukian plagioa ikusiko balitz, moduluko lana ez gainditzeko arrazoia izan daiteke.

- **Prozesua (%5)**

Lanaren prozesua kalifikatzeko ikasleen arteko koebaluazioa egingo da. Zuetako bakoitzak taldekide guztien ebaluazioa bidaliko dio tutoreari eta tutoreak, batezbestekoak kalkulatu ondoren, ikasle bakoitzak lortutako kalifikazioa erantsiko die moduluko lanaren beste ataletan lortutakoei.

Taldekideak ebaluatzeko txantiloia 5. eranskinean dago.

Irakasle-tutoreari bidali beharreko dokumentua 6. eranskinean dago.

Lehen deialdian gainditzen ez duten ikasleek lana dagokion hobekuntzekin hurrengo deialdian aurkezteko aukera izango dute.

Eskola-saiotara bertaratzen ez diren ikasleak

Etortzerik izango ez dutenek, proiektuari dagozkion konpetentziak lortu dituztela erakusteko, azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean.

9. Eranskinak

1. eranskina. Ikasleen talde-fitxa

LH/HH Gradu bikoitza

TALDEAREN IZENA:

TALDEAREN KOORDINATZAILEAREN IZENA ETA TELEFONOA:

	IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:
IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:	
	IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:
IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:	
	IZENA: ABIZENAK: e-MAILA:

AUKERATUTAKO KANPOKO BALIABIDEA (lehentasunaren arabera adieraiz)

1.

2.

3.

4.

5.

2. eranskina. Kanpo baliabidearen erregistro fitxa

Kanpo baliabidearen erregistro fitxa

Kanpoko baliabidera egindako bisitan, honako fitxa hau bete beharko duzue. Helburua bisitari buruzko oinarritzko informazioa modu antolatuan jasotzea da. Informazio hori baliagarria izango da ondorengo analisia eta azken txostena egiteko.

Bisitara joan aurretik kontsultatutako materiala

Zerrendatu bisita prestatzeko erabilitako materialak (psikologia edo didaktika arloetako behaketa-taulak, irakasgaietako materialak, bestelako dokumentuak, etab.).

Bisitaren deskribapen laburra

Kanpoko baliabidearen izena:

Bisitaren data eta kokalekua:

Betetako ordutegia:

Bisitan harremanetan jarritako pertsonak eta haien funtzioak:

Bisitatutako espazioa(k):

Oharrak (testuingurua, antolaketa, dinamika orokorra, etab.):

Aztertu den jarduera zehatza

Azaldu laburki zein jarduera edo proposamen didaktiko aztertuko duzuen ondorengo lanean eta azterketa honen nondik norakoak. Zehaztu, ahal den neurrian:

- norekin egin den (ikasleen adina, taldea...)
- jardueran zehar egindako galderak
- izandako elkarrizketak edo azalpenak
- eta azterketarako garrantzitsutzat jotzen dituzuen bestelako alderdiak

Informazio audiobisuala

Irudiak, bideoak edo bestelako material audiobisualak (esteka):

3. eranskina. Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Orokorraren Zehaztapen taulak.

HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA			
	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
IKASKUNTZA- IRAKASKUTZA EREDUA	Ikaskuntza esanguratsua	<i>Nola ikasten dute ikasleek?</i>	Aurrezagutzak aktibatzen dituzte
			Aurrezagutzak eta eduki berrien arteko loturak eratzen dituzte
			Ikaskuntza aktiboa egiten dute
			Motibatuta daude
		<i>Jarduera sekuentziak edota monitoreek ikaskuntza esanguratsua eragiten dute?</i>	Aurrezagutzak aktibatzen dira
			Aurrezagutzak ebaluatzen dira
			Jarduerak diseinatzen dira ikaskuntza emaitzen arabera
			Jarduerak egokitzen dira taldearen ezaugarrien arabera
			Jarduerak ikasleen arreta deitzen dute eta euren interesetara moldatzen dira
	Egitura kognitiboan aldaketak eta ikaskuntza sakona	<i>Ikasleek dituzten kontzeptuengan aldaketak ematen dira?</i>	Kontzeptua/k zabaltzen da/dituzte
			Aurretiko kontzeptuen esanahia aldatzen dute
			Lotura gabeko aurretiko kontzeptuen arteko loturak ezartzen dituzte
			Kontzeptu baten ezaugarriak aldatzen dituzte eta, modu koordinatuan, beste batzuen ere
		<i>Eragiten den ikaskuntza sakona da?</i>	Arrazoitzeko denbora uzten da
			Pentsamendu kritikoa eragiten da
			Sorkuntzarako lekua dago
			Ikaskuntzak transferitzeko aukera dago
			Praktika eta automatizazioa: errepikapenak egiten dira
			Ebokazioa praktikatzen da

	Irakaskuntza ereduak	<i>Irakaskuntza- markoa konstruktibista da? Zer egiten dute monitoreek?</i>	Klase expositiboa: azalpen kontzeptualak ematen dira
			Partehartzea gidatzen da (Vigotsky)
			Jolasak trebetasun edota eduki berriekin esperimentatzeko aukera ematen du (Piaget)
			Indagazio gidatua (Ausubel): arrazoiketa deduktiboa edota induktiboa eragiten da
			Deskubrimenduaren bitarteko ikaskuntza (Bruner): problemen ebazpena egiten da

DIDAKTIKA OROKORRA			
ARLOAK	DIMENTSIOAK	GALDERA ERAGILEA	ADIERAZLEAK
OINARRIZKO JAKINTZAK	Ezagutza Curricularra	<i>Zer ikasi du?</i>	Oinarrizko jakintza multzoa eta azpimultzoa
METODOLOGIA	Jarduerak	<i>Nolako jarduerak proposatzen dira?</i>	Erantzun bakarra edo irekia dutenak
			Askeak edo gidatuak
			Sekuentzietan antolatuak (metodo jakin bat) edo antolatu gabeak
			Pasiboki edo aktiboki parte hartu beharrekoak
	Espazioaren Antolakuntza	<i>Nola antolatzen da espazioa?</i>	Aurrez prestatuta edo ez
	Denboraren Antolakuntza	<i>Nola antolatzen da denbora?</i>	Ordutegi itxia eta zurruna
			Ordutegi erdi-egituratua
			Ordutegi malgua eta moldakorra
	Taldearen antolakuntza	<i>Nola antolatzen dira ikasleak?</i>	Taldeka [txikian, handian, etab.]
			Banaka
			Egonkorra edo aldakorra
	Baliabide Materialak	<i>Zer baliabide materialak erabiltzen dira?</i>	Material manipulatioa
			Material audiobisuala
			Paperezko materiala
EBALUAZIOA	Teknikak eta tresnak	<i>Zeintzuk dira erabiltzen diren ebaluazio instrumentuak?</i>	Galdetegiak edo froga idatziak
			Behaketa
			Elkarriketa
			Solasaldiak edo eztabaidak
	irizpideak	<i>Zer ebaluatzen da?</i>	Jarrerak
			Prozedura
			Ezagutza deklaratioak

	Funtzioa	<i>Zertarako ebaluatzen da</i>	Diagnostikoa, formatiboa, jarraia, egiaztatzeko (kalifikatzeko)
	Egileak	<i>Nork ebaluatzen du?</i>	Autoebaluazioa, kohebaluazioa eta heteroevaluazioa

4. eranskina. Ebaluazio errubrika.

Hobetu daiteke (0-4.9)	Nahikoa (5-6.9)	Oso ondo (7-8.9)	Bikain (9-10)
M1. Gaur egun Lehen Hezkuntza etapan erabilgarriak izan daitezkeen kanpo baliabide didaktikoak aztertzea eta baloratzea, curriculum osagaietatik eta arlo desberdinetako ikuspegietatik abiatuta, elkarlanean			
Curriculumaren osagai batzuen deskripzioak falta dira. Baliabidearen bitartez landu daitezken “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko konpetentzia espezifikoak ez dira identifikatzen, edota identifikazioa ez da egokia, edota identifikatzen badira, ez dira justifikatzen. Baliabidearen bitartez landu daitezken “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko oinarritzko jakintzak ez dira identifikatzen, edota identifikazioa ez da egokia, edota	Curriculumaren lau osagai hauteman eta zehatz deskribatu dira. Baliabidearen bitartez landu daitezken “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko konpetentzia espezifiko batzuk ez dira egoki identifikatzen edota horien justifikazioa ez da beti egokia. Baliabidearen bitartez landu daitezkeen “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko oinarritzko jakintza batzuk ez dira egoki identifikatzen.	Metodologiaren azalpenean curriculumaren osagaiak eta ezaugarriak agertzen dira. Baliabidearen bitartez landu daitezken “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko konpetentzia espezifiko gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira baina horien justifikazioa ez da beti egokia. Baliabidearen bitartez landu daitezken “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko oinarritzko jakintza gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira.	Curriculum osagaien arteko korrespondentzia analizatu da (koherentzia baliabide didaktikoaren barnean) Baliabidearen bitartez landu daitezken “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko konpetentzia espezifiko gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira eta horien justifikazioa egokia da. Baliabideak lantzen dituen “NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA”, “MATEMATIKA” eta “HEZKUNTZA ARTISTIKOA” arloen 1go zikloko oinarritzko jakintzak modu egokian

identifikatzen badira, ez dira justifikatzen. Arlo desberdinetatik egindako analisiak agertzen dira modu isolatuan, baina ez dira elkarren artean lotzen, eta baliabidearen balorazio orokorra ez da egiten edo oso azalekoa da.	Arlo desberdinetatik egindako analisiak kontuan hartuta, baliabidearen balorazio orokor bat egiten da, baina modu sinplean edo partzialean, eta integrazioa mugatua da.	Arlo desberdinetatik egindako analisiak kontuan hartuta, baliabidearen balorazio orokor koherentea egiten da.	identifikatzen eta justifikatzen dira. Arlo desberdinetatik egindako analisiak modu integratuan bateratzen dira, eta baliabidearen balorazio orokor arrazoitua eta ongi artikulatua egiten da.
M2. 6-12 urte bitarteko etapan ikaskuntza-irakaskuntza oinarritzko printzipioak aztertzea eta ulertzea, kanpo baliabide didaktikoen analisi eta balorazioari aplikatuz.			
Ikaskuntza-irakaskuntzaren oinarritzko eduki eta termino gutxi erabiltzen dira, eta garrantzitsuak direnak ez dira behar bezala txertatzen. Kontzeptuak modu isolatuan aurkezten dira, eta hausnarketak azalekoak dira, justifikaziorik gabeak. Oinarritzko printzipioak ez dira behar bezala aplikatzen kanpo baliabidearen analisisan, eta ondorio didaktikoak ez dira agertzen edo oso orokorrak dira.	Ikaskuntza-irakaskuntzaren hainbat eduki eta termino erabiltzen dira, nahiz eta batzuk ez izan garrantzitsuenak. Kontzeptuak modu sinplean erlazionatzen dira, eta hausnarketak egokiak dira, baina justifikazio gehiago beharko lukete. Oinarritzko printzipio batzuk identifikatu eta aplikatzen dira kanpo baliabidearen analisisan, baina modu partzialean. Ondorio didaktikoak agertzen dira, nahiz eta sakontasun edo koherentzia handiagoa behar duten.	Ikaskuntza-irakaskuntzaren eduki eta termino egokiak erabiltzen dira, eta gehienak garrantzitsuak dira. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira, eta hausnarketa ongi justifikatuta dago. Oinarritzko printzipioak ongi ulertzen eta aplikatzen dira kanpo baliabidearen analisisan. Ondorio didaktikoak argiak dira eta, oro har, koherenteak, nahiz eta sakontasun handiagoa izan lezaketen.	Ikaskuntza-irakaskuntzaren eduki eta termino ugari eta egokiak erabiltzen dira, kontzeptuak modu landu eta koherentean erlazionatuz. Hausnarketak heldutasun maila handia erakusten du eta behar bezala justifikatuta dago. Azterketak ondorio didaktiko argiak, koherenteak eta ongi artikulatuak planteatzen ditu.
M3. Museo, zentro edo espazio kultural baten inguruko narrazio bisual bat sortzea, garatzea eta aurkeztea, bizitako esperientzian eta egindako analisisan oinarrituta, behaketa kritikotik, hausnarketa pertsonaletik eta esperimentazio formal eta teknikitik abiatuta.			
Edukien ulermena azalekoa da, eta haien aplikazioa partziala edo desegokia.	Oinarritzko edukiak ulertzen eta aplikatzen ditu, sakontasun mugatuarekin.	Edukiak ongi barneratu eta modu egokian aplikatzen ditu narrazio bisualean.	Edukien barneratze sakona erakusten du, erabilera zehatza, kritikoa eta aberatsa eginez.

Hausnarketa eskasa edo ia inexistentea; azalpen deskribatzaile hutsa. Proposamen estereotipatua; esperimentazio gutxi edo ia inexistentea.	Hausnarketa sinplea, lotura gutxiarekin testuinguruarekin edo esperientzia propioarekin. Ikuspegi pertsonal apala; esperimentazio mugatua materialen edo tekniken erabileran	Hausnarketa pertsonal eta kritikoa garatzen du, narrazioari zentzua emanez. Narrazio sortzailea eta norberarena, esperimentazio kontzientearekin.	Hausnarketa sakon, konplexu eta oso koherentea egiten du, lotura esanguratsuak sortuz. Proposamen oso originala eta ausarta, materialen eta tekniken adierazkortasuna modu sakonean esploratuz.
M4. Taldeka idatzizko txosten bat egitea Haur eta Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, informazioaren teknologiak eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio konpetentziak erabiliz ere..			
Ez ditu eduki eta termino asko erabiltzen eta garrantzitsuak direnak ezta ere. Kontzeptuak modu isolatuan aurkezte dira. Idazkeran 4 akats morfosintaktikotik gora daude eta txostenaren formatua ez da zaindu.	Hainbat eduki eta termino biltzen ditu, baina batzuk ez dira garrantzitsuak. Kontzeptuak modu erraz batean erlazionatzen dira. Idazkeran 3-4 akats morfosintaktiko daude eta txostenaren formatua gehiago zaindu zitekeen.	Eduki eta termino dezente biltzen ditu eta garrantzitsuak dira gehienak. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira. Idazkeran 1-2 akats morfosintaktikotik daude eta txostenaren formatua txukuna da.	Eduki eta termino ugari biltzen ditu eta garrantzitsuak dira. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira. Idazkeran ez dago akats eta txostenaren formatua oso zaindua eta landua dago.
M5. Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko			
Eskatutako zereginak ez dira garaiz entregatzen, eta taldeak ezarritako datak atzeratzen ditu. Egindako lana eskasa da talde-giroa ez delako egon ezta lanarekiko interesik ezta ere.	Entrega bat ez da garaiz entregatu eta ez du taldearen plangintzan ondoriorik izan. Egindako lana nahikoa da talde-giroa minimoa eta lanarekiko interesa egon delako.	Entrega guztiak garaiz entregatu dira eta taldearen plangintza egon da. Egindako lana egokia da talde-giroa eta lanarekiko interesa egon delako.	Entrega guztiak garaiz entregatu dira eta taldearen plangintza garbia egon eta ikusi da. Egindako lana bikaina da talde-giroa eta lanarekiko interesa eta kezka ikusi delako.

5. eranskina. Taldearen dinamika ebaluatzeko txantiloia

TALDE-LANA vs LANTALDEA · ELKARLANA EBALUATZEKO ERRUBRIKA

	Taldekidearen izena:	
Irizpideak	Adierazleak	0 – 5 (1: eskas; 2: hobeto behar; 3: nahikoa; 4: oso ondo; 5: bikain)
EKARPENAK eta PARTAIDETZA	- Helburuak argitzen eta adosten saiatzen da. - Taldearekin partekatzen ditu ideiak eta iritziak. - Besteei eskatzen dizkie ideiak eta iritziak, eta saiatzen da horiek zabaltzen eta osatzen, lanean integratzen. Ezagutza sakontzeko, besteei ideien argudioak eskatzen dizkie. - Ulertzen ez duenean galdetu egiten die taldekideei; besteek ulertzen ez duten kasuan erantzuna berak badaki, taldekideei eskaintzen die.	
JARRERAK	- Jokaera positiboa dauka, aktiboki entzuten du eta parte hartzen du. - Besteen partaidetza bultzatzen du. - Lankideei laguntza ematen die eta bere merituen aitortzen ditu. - Ideiak kritikatzeko, ez pertsonak. - Talde kohesioa mantentzen saiatzen da eta taldekideen gogoaldarteak kontuan hartzen saiatzen da. - Zailtasunen aurrean saiatu egiten da, taldekideak animatu egiten ditu eta ikaskuntzan onartu egiten ditu arriskuak.	
ERANTZUKIZUNA	- Adostutako arauak betetzen ditu. - Bere lanak adostutako epeetan entregatzen ditu. - Bere lan erritmoak ez du oztopatzen taldeko planifikazioa. - Lana eman baino lehen orraztu egiten du. - Hartutako konpromisoak betetzen ditu.	
BERTARATZEA eta PUNTUALITASUNA	- Bilera guztietara joaten da. - Bileretara garaiz agertzen da eta bukaera arte ez du alde egiten. - Kaleren bat egiten badu edo berandu ailegatzen bada, ongi justifikatzen du.	
GATAZKAK KONPONTZEA	- Desadostasun edo gatazka egoeretan besteen iritziak eta iradokizunak entzuten ditu eta saiatzen da onartzen. - Modu asertiboan adierazten ditu bere desadostasunak. - Saiatzen da beste aukerak bilatzen eta irtenbide adostuak onartzen. - Tentsioak bideratzen ahalegintzen da. - Entzute eraginkorra bultzatzen du eta komunikazioa errazten du.	
	<i>Batezbestekoa</i>	

Iturri hauetatik egokitua:

Johnson, David W., eta Johnson, Roger T. (2014). *La evaluación en el aprendizaje cooperativo*. SM argitaletxea.

Chica Merino, Encarnación (2011). Una propuesta de evaluación para el trabajo en grupo mediante rúbrica. *Escuela Abierta*, 14, 67-81.

6. eranskina. Taldekideen koebaluzioa (tutoreari bidaltzeko)

Taldea		
Ebaluatzailea		
		Prozesuaren kalifikazioa (0,5etik)
Ebaluatutako taldekideak	[a ikaslearen izen-abizenak]	
	[b ikaslearen izen-abizenak]	
	[c ikaslearen izen-abizenak]	
	[d ikaslearen izen-abizenak]	
Oharrak (Azalpena, gogoeta...)	(Behean idatzi)	